

oarsoaldeko hitza

EGUNEKO TITULARRAK | AGENDA | EZTABAIDA | ZERBITZUAK | IRUDIETAN | MERKATU TXIKIA | AGURRAK | TXOKOA | ZEUK

OARSOALDEA

Errenteria-
Orereta

Lezo

Oiartzun

Pasaia



Tolosaldeko
Hitza

Busturialdeko
Hitza

Urola Kostako
Hitza

Irutxuloko

Hitza

Goierriko

Hitza

Lea-Artibaialdeko
weba

[Eman izena](#)

[Hitza
jasotzeko](#)

Dagoeneko mil:

PASAIA

MUGAK »

Donostiako PPK mugen auziari buruzko mozioa aurkeztuko du plenoan

Pasaiarekin elkarrizketak bultzatzeko eskatuko du alderdi popularrak

OLATZ MITXELENA

Donostiako PPK iragarri du hiriburuko hurrengo plenoan Pasaia eta Donostia arteko mugen auziari buruzko mozioa aurkeztuko duela. PPKo zinegotzi Javier Urbistondok jakinarazi duenez, Lurralde Antolamendurako azken batzordean Donostiako Udalak Darietako errepide berriaren eraikuntza, Audituz Akular proiektutik bereiztea proposatu zuen, lur eremu horien zati bat Pasaia beretzako eskatzen duelako, eta bi udalerrien artean, mugen auzian, ez delako oraindik akordioarik lortu.

PPren iritziz «tamalgarría» da oraindik akordioetara ez iritsi izana. Bide batez, Donostiako plenoak iragan ekainean gobernu taldeari egoera desblokeatzeko eskatuz mozio bat onartu zuela gogora ekarri du Urbistondok. Alderdi popularreko zinegotziaren arabera, ordea, Odon Elorzak ez du ordutik gaia berbideratzeko ezer egin.

Horregatik, mozioan, «Pasaia gobernu taldearekin elkarrizketak bultzatzeko» eskatuko du PPK, «bi udalerrien interesekoak diren proiektuak garatu ahal izateko». Era berean, «alkateak gai honetan erakusten duen jarrera arduragabea gaitzesteko» eskatuko dute. Donostiako plenoa datorren asteartean izango da.

Pasaia alegazioak

Pasaia Udalak iazko azaroko plenoan berretsi zituen Audituz Akular proiektuari aurkeztutako alegazioak, udalerriko talde guztiek osazen duten Mugen Batzordeak proposatuta.

Aipatu alegazioetan, Mugen Batzordeak bi ideia nagusi azpimarratzen ditu: batetik, mugen auzia konpontzen ez den bitartean Donostiak ezin duela alde bakarreko erabakirik hartu, eta bestetik, Donostiako Hirigintza Planak aurreikusten duen Audituz Akularreko proiektuak eragin kaltegarria izango lukeela Antxon.

2.800 etxebizitza

Donostiako Plan Orokorrean aurreikusten denez, Donostiak 2.800 etxebizitza eraiki nahi ditu Audituz Akularren. Horrez gain, Landarron, Eskalantegi kalean eta Molinaon beste hainbat hirigintza egitasmo dauzka Donostiak.

Horien guztien kontrako iritzia azalduz, alegazioak aurkeztu zituen Pasaia Udalak, urgentziatzeko prozeduraz, Donostian.



handitu

> D

Lez
(200

> D

0. 1
esku
(200

€

>

Pas
bur
egit
Pas
dira
pro:

T

T

oi

F

Ir



0.

Gaur bilduko dira Pasaian

Alegazioen testua adostuz geroztik, Pasaiako Mugen Batzordeak ez du bilkurarik egin, baina, Oarsoaldeko Hitzak batzordeko iturrietatik jakin ahal izan duenez, batzordeko orezkariak gaur bilduko dira, «gaiaren inguruan azaldu diren azken berrien jarraipena egiteko asmoz».

Darietako errepideari lotutako azken berriez gain, beste hainbat gai dituzte eztabaidatzeko; tartean, Buenabista auzoko saneamendu sareari buruzkoak. 3

>> BIDALI ZURE IRITZIA

Izena:

Eposta:

Tituloa:

Testua:

--=Mezua Bidali=--

Aurreko edizioak:

© Oartzualdeko Hedabideak S.L. Santa Klara 22, 20100 ERRETERIA-ORERETA



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea